# ISEI - IVEI

## Rs11. UNIBERTSITATEKO ETA UNIBERTSITATEZ KANPOKO GOI MAILAKO HEZKUNTZAKO TITULUDUNAK

ISEI·IVEI

**Edizioa: 2011ko abendua**
**© ISEI•IVEIk argiraratua**

**ISEI•IVEIK ARGITARATUA**
Irakas-sistema Ebaluatu eta Ikertzeko Erakundea
Asturias 9, 3.a - 48015 Bilbo
Tel.: 94 476 06 04 - Fax: 94 476 37 84
info@isei-ivei.net - www.isei-ivei.net

**KOORDINATZAILEA**
Paz Martínez

**AHOLKULARITZA TEKNIKOA**
Eduardo Ubieta
ç

## HIRUGARREN MAILAKO HEZKUNTZAKO IKASKETAK (CINE 5A, 5B ETA 6) BUKATU DITUEN 30-34 URTE BITARTEKO BIZTANLERIAREN EHUNEKOA.

**Europar Batasunaren helburua 2020. urterako: 30-34 urte bitarteko biztanleen % 40k gutxienez hirugarren mailako hezkuntzako ikasketak (CINE 5A, 5B eta 6) bukatu beharko lituzkete.**

Ezagutzan oinarritutako ekonomia modernoaren eskakizunei erantzun ahal izateko, ezinbestekoa da goi mailako hezkuntzaren errendimendua optimizatzea, bai unibertsitate mailan baita lanbide heziketakoan ere.

Europak goi mailako hezkuntzako tituludun gehiago behar ditu, berariazko ezagupenak eta askotariko trebetasunak (komunikazioa, malgutasuna, sormena, enpresa-izpiritua) dituztenak. Horretarako, goi mailako hezkuntzako erakundeek lan egin behar dute hezkuntzak, berriztatzeak eta ikerketak elkarri eragin diezaioten.

Europar Batasunak 2020rako helburu estrategikotzat finkatu du 30-34 urte bitarteko biztanleen artean goi mailako hezkuntzako tituludunen ehunekoa % 40raino igotzea. Euskadin 2010ean goi mailako tituludunen ehunekoa (% 59,9) finkatutako helburua baino 19,9 puntu altuagoa zen. Espainiak ere helburua bete du, baina Euskadiko batez bestekoa Espainiakoa (% 40,6) baino altuagoa eta Europar Batasuneko 27 herrialdeetako batez bestekoa (% 33,6) baino 26,3 puntu altuagoa da, azken hori helburutik 6,4 puntu beherago dagoelarik.

Euskadik, 30-34 urte bitarteko goi mailako tituludunen tasari dagokionez, Europar Batasuneko herrialde guztiak gainditzen ditu. Haien arteko 13k 2010ean gainditua zuten helburua. Ehunekorik altuenak Irlandakoa (% 49,9), Danimarkakoa (% 47,0) eta Luxenburgokoa (% 46,1) dira; baxuenak, berriz, Errumaniakoa (% 18,1), Maltakoa (% 18,6) eta Italiakoa (% 19,8).

18 autonomia erkidegoen arteko 8k bakarrik betea zuten helburua 2010ean. Ehunekorik altuenak dituzten erkidegoak Euskadi (% 59,9), Madril (% 51,3) eta Nafarroa (% 50,3) dira; ehunekorik baxuenak dituztenak, Ceuta eta Melilla (% 23,1), Balear uharteak (% 25,6) eta Murtzia (% 27,7) dira.

Goi mailako hezkuntzako tituludunen ehunekoaren bilakaera 2000-2010 aldian positiboa izan da, bai Europar Batasuneko herrialdeetan bai autonomia erkidegoetan. Europar Batasuneko batez bestekoa 2000n % 22,4 izatetik 2010ean % 33,6 izatera pasa da. Autonomia erkidegoen kasuan, batez bestekoa % 29,2tik % 40,6ra hazi da aldi horretan. Eta Euskadiren kasuan goi mailako hezkuntzako tituludunen ehunekoa 2000n % 44,6 izatetik 2010ean % 59,9 izatera pasa da.

Bai Europar Batasuneko herrialdetan bai autonomia erkidegoetan, Euskadi barne, goi mailako hezkuntzako tituludunen artean emakumezkoen kopurua gizonezkoena baino handiagoa da. Salbuespenak Europar Batasunean Alemania (-0,2), eta Espainian Ceuta eta Melilla (-4,0) dira, han gizonezkoen kopurua emakumezkoena baino handiagoa baita. Batez besteko aldea 8,2 da Euskadin, 7,2 Europar Batasunean eta 10,2 Espainiaren kasuan.

Euskadiren kasuan, eta baita 2010ean helburua betea zuten Europar Batasuneko herrialdeetan eta autonomia erkidegoetan ere, ahalegina hiru helburu betetzera bideratu beharko litzateke: alde batetik, sexuaren aldetiko aldeak murriztea; bigarrenez eta bereziki, goi mailako hezkuntzako erakundeek hezkuntzak, berriztatzeak eta ikerketak elkarri eragin diezaioten lan egitea; eta azkenik, unibertsitateko tituludunen ehunekoa eta goi mailako Lanbide Heziketako tituludunen ehunekoa orekatzea.

## Rs11.1 taula eta grafikoa:

**Goi mailako hezkuntzako titulua (unibertsitatekoa, CINE 5A eta 6; unibertsitatez kanpokoa, CINE 5B) duen 30-34 urte bitarteko biztanleriaren ehunekoaren bilakaera. Orokorra eta sexuaren arabera. Euskadiko[1] datuak.**

| | Sexu biak | Emakumezkoak | Gizonezkoak | Aldea[1] |
|---|---|---|---|---|
| **2000** | 44,6 | 46,6 | 42,6 | 4,0 |
| **2001** | 44,9 | 46,2 | 43,7 | 2,5 |
| **2002** | 45,2 | 45,0 | 45,4 | -0,4 |
| **2003** | 48,0 | 49,6 | 46,5 | 3,1 |
| **2004** | 50,4 | 51,1 | 49,8 | 1,3 |
| **2005** | 54,9 | 55,7 | 54,2 | 1,5 |
| **2006** | 55,3 | 61,1 | 49,8 | 11,3 |
| **2007** | 59,2 | 66,5 | 52,2 | 14,3 |
| **2008** | 58,3 | 62,7 | 54,1 | 8,6 |
| **2009** | 62,7 | 67,9 | 57,8 | 10,1 |
| **2010** | 59,9 | 64,1 | 55,9 | 8,2 |

[1]Balio positiboek goi mailako hezkuntzako tituludunen artean emakumezkoen kopurua gizonezkoena baino handiagoa dela adierazten dute. Kasu batzuetan aldea ez dator bat kendurarekin, batez besteko puntuazioak biribiltzeko hamarrenak doitzearen ondorioz.




Iturria: INE, Encuesta de Población Activa (EPA-2005). Urteko batez bestekoak.

[1] Datuak arretaz interpretatu behar dira, lagin txikietatik ateratakoek laginketa-errore handiak izan ditzaketelako.

## Rs11.2 taula:

**Goi mailako hezkuntzako titulua (unibertsitatekoa, CINE 5A eta 6; unibertsitatez kanpokoa, CINE 5B) duen 30-34 urte bitarteko biztanleriaren ehunekoaren bilakaera. Autonomia erkidegoetako datuak[2].**

| | 2000 | 2001 | 2002 | 2003 | 2004 | 2005 | 2006 | 2007 | 2008 | 2009 | 2010 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **Espainia** | **29,2** | **31,3** | **33,3** | **34,0** | **35,9** | **38,6** | **38,1** | **39,5** | **39,8** | **39,4** | **40,6** |
| Andaluzia | 23,1 | 24,5 | 26,8 | 28,0 | 29,4 | 30,1 | 30,4 | 33,0 | 33,0 | 32,8 | 34,2 |
| Aragoi | 35,9 | 38,9 | 36,1 | 37,9 | 38,7 | 42,5 | 43,3 | 43,6 | 41,2 | 41,2 | 44,9 |
| Asturias | 29,3 | 27,3 | 34,0 | 37,4 | 38,9 | 39,9 | 36,7 | 39,2 | 40,3 | 43,6 | 41,7 |
| Balear uharteak | 22,8 | 20,8 | 25,7 | 25,4 | 24,1 | 29,4 | 32,7 | 26,2 | 27,2 | 26,7 | 25,6 |
| Kanariak | 21,4 | 26,3 | 29,4 | 26,3 | 28,8 | 31,9 | 28,8 | 31,6 | 31,7 | 29,4 | 32,1 |
| Kantabria | 27,4 | 31,5 | 32,3 | 40,7 | 40,2 | 43,7 | 41,5 | 46,8 | 46,9 | 45,6 | 42,9 |
| Gaztela-Mantxa | 34,1 | 34,0 | 35,1 | 37,8 | 40,2 | 40,0 | 41,4 | 42,5 | 43,9 | 43,5 | 46,1 |
| Gaztela eta Leon | 19,8 | 23,2 | 25,5 | 25,3 | 22,6 | 28,8 | 31,1 | 32,6 | 29,5 | 33,9 | 35,9 |
| Katalunia | 29,8 | 33,2 | 36,9 | 37,0 | 38,6 | 40,0 | 37,4 | 38,3 | 41,0 | 39,9 | 41,3 |
| Ceuta eta Melilla | 23,4 | 28,2 | 27,7 | 20,2 | 16,1 | 30,8 | 33,7 | 26,7 | 32,0 | 26,4 | 23,1 |
| Valentziako Erk. | 27,0 | 26,2 | 25,5 | 26,3 | 32,3 | 36,5 | 36,5 | 38,1 | 36,5 | 36,2 | 36,3 |
| **Euskadi** | 44,6 | 44,9 | 45,2 | 48,0 | 50,4 | 54,9 | 55,3 | 59,2 | 58,3 | 62,7 | 59,9 |
| Extremadura | 21,2 | 19,2 | 22,7 | 24,7 | 26,7 | 32,0 | 32,4 | 31,5 | 31,8 | 33,9 | 35,6 |
| Galizia | 27,5 | 30,7 | 32,0 | 36,2 | 37,1 | 39,7 | 41,7 | 43,9 | 45,1 | 43,5 | 43,7 |
| Madril (Erk.) | 37,8 | 42,3 | 43,9 | 42,8 | 44,6 | 50,2 | 47,8 | 48,6 | 50,6 | 47,3 | 51,3 |
| Murtzia | 23,9 | 28,6 | 30,1 | 29,9 | 33,2 | 30,7 | 30,2 | 32,5 | 30,6 | 31,0 | 27,7 |
| Nafarroa | 40,8 | 46,2 | 48,7 | 46,6 | 43,4 | 46,5 | 50,6 | 51,9 | 46,1 | 48,5 | 50,3 |
| Errioxa | 32,2 | 33,0 | 39,4 | 39,1 | 44,9 | 40,9 | 37,2 | 40,1 | 36,0 | 42,8 | 48,0 |

Iturria: INE, Encuesta de Población Activa (EPA-2005). Urteko batez bestekoak.

[2] Datuak arretaz interpretatu behar dira, lagin txikietatik ateratakoek laginketa-errore handiak izan ditzaketelako.

## Rs11.2 grafikoa:

**Goi mailako hezkuntzako titulua (unibertsitatekoa, CINE 5A eta 6; unibertsitatez kanpokoa, CINE 5B) duen 30-34 urte bitarteko biztanleriaren ehunekoaren bilakaera. Autonomia erkidegoetako datuak. 2005. eta 2010. urteak.**




Derrigorrezkoaren osteko bigarren hezkuntzako tituludunen ehunekorik handienetik txikienera “2010. urtea” irizpidearen arabera ordenatua.

Iturria: INE, Encuesta de Población Activa (EPA-2005). Urteko batez bestekoak

## Rs11.3 taula eta grafikoa:

**Goi mailako hezkuntzako titulua (unibertsitatekoa, CINE 5A eta 6; unibertsitatez kanpokoa, CINE 5B) duen 30-34 urte bitarteko biztanleriaren ehunekoaren bilakaera. Orokorra eta sexuaren arabera. Autonomia erkidegoetako[3] datuak. 2010. urtea.**

| | Orokorra | Emakumezkoak | Gizonezkoak | Aldea[1] |
|---|---|---|---|---|
| **Espainia** | **40,6** | **45,9** | **35,7** | **10,2** |
| Andaluzia | 34,2 | 40,7 | 28,0 | 12,7 |
| Aragoi | 44,9 | 48,7 | 41,3 | 7,4 |
| Asturias | 41,7 | 51,2 | 32,5 | 18,7 |
| Balear uharteak | 25,6 | 31,2 | 20,4 | 10,8 |
| Kanariak | 32,1 | 33,6 | 30,6 | 3,0 |
| Kantabria | 42,9 | 48,4 | 37,7 | 10,7 |
| Gaztela-Mantxa | 46,1 | 41,0 | 31,3 | 9,7 |
| Gaztela eta Leon | 35,9 | 52,8 | 39,9 | 12,9 |
| Katalunia | 41,3 | 47,3 | 35,6 | 11,7 |
| Ceuta eta Melilla | 23,1 | 21,1 | 25,1 | -4,0 |
| Valentziako Erk. | 36,3 | 40,5 | 32,5 | 8,0 |
| **Euskadi** | **59,9** | **64,1** | **55,9** | **8,2** |
| Extremadura | 35,6 | 43,9 | 27,6 | 16,3 |
| Galizia | 43,7 | 50,8 | 36,7 | 14,1 |
| Madril (Erk.) | 51,3 | 53,7 | 49,0 | 4,7 |
| Murtzia | 27,7 | 34,6 | 21,7 | 12,9 |
| Nafarroa | 50,3 | 59,6 | 41,6 | 18,0 |
| Errioxa | 48,0 | 50,4 | 45,8 | 4,6 |

[1]Balio positiboek goi mailako hezkuntzako tituludunen artean emakumezkoen kopurua gizonezkoena baino handiagoa dela adierazten dute. Kasu batzuetan aldea ez dator bat kendurarekin, batez besteko puntuazioak biribiltzeko hamarrenak doitzearen ondorioz.




Handienetik txikienera "Sexu biak" irizpidearen arabera ordenatua.

Iturria: INE, Encuesta de Población Activa (EPA-2005). Urteko batez bestekoak

[3] Datuak arretaz interpretatu behar dira, lagin txikietatik ateratakoek laginketa-errore handiak izan ditzaketelako.

## Rs11.4 taula:

**Goi mailako hezkuntzako titulua (unibertsitatekoa, CINE 5A eta 6; unibertsitatez kanpokoa, CINE 5B) duen 30-34 urte bitarteko biztanleriaren ehunekoaren bilakaera Europar Batasuneko herrialdeetan.**

| | 2000 | 2001 | 2002 | 2003 | 2004 | 2005 | 2006 | 2007 | 2008 | 2009 | 2010 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **EB (27 herrialde)** | **22,4** | **22,8** | **23,5** | **25,0** | **26,9** | **28,0** | **28,9** | **30,0** | **31,1** | **32,3** | **33,6** |
| Alemania | 25,7 (i) | 25,5 (i) | 24,2 (i) | 25,1 (i) | 26,8 (i) | 26,0 (b) | 25,9 (i) | 26,5 (i) | 27,7 (i) | 29,4 (i) | 29,8 (i) |
| Austria | : (u) | : (u) | : (u) | : (u) | 21,0 (i) | 20,5 | 21,2 | 21,1 | 22,2 | 23,5 | 23,5 |
| Belgika | 35,2 (b) | 35,2 | 35,2 | 37,7 | 39,9 | 39,1 | 41,4 | 41,5 | 42,9 | 42,0 | 44,4 |
| Bulgaria | 19,5 | 23,6 (b) | 23,2 | 23,6 | 25,2 | 24,9 | 25,3 (i) | 26,0 | 27,1 | 27,9 | 27,7 |
| Zipre | 31,1 | 32,7 | 36,0 | 39,9 | 41,0 | 40,8 | 46,1 | 46,2 | 47,1 | 44,7 | 45,1 |
| Danimarka | 32,1 | 32,9 (i) | 34,2 | 38,2 (b) | 41,4 | 43,1 | 43,0 | 42,5 (b) | 45,4 | 48,1 | 47,0 |
| Eslovakia | 10,6 | 10,7 | 10,5 | 11,5 | 12,9 | 14,3 | 14,4 | 14,8 | 15,8 | 17,6 | 22,1 |
| Eslovenia | 18,5 (b) | 18,1 | 20,7 | 23,6 | 25,1 | 24,6 | 28,1 | 31,0 | 30,9 | 31,6 | 34,8 |
| **Espainia** | **29,2** | **31,3** | **33,3** | **34,0** | **35,9** | **38,6** | **38,1** | **39,5** | **39,8** | **39,4** | **40,6** |
| Estonia | 30,8 (b) | 29,5 | 28,1 | 27,6 | 27,4 | 30,6 | 32,5 | 33,3 | 34,1 | 35,9 | 40,0 |
| **Euskadi*** | **44,6** | **44,9** | **45,2** | **48,0** | **50,4** | **54,9** | **55,3** | **59,2** | **58,3** | **62,7** | **59,9** |
| Finlandia | 40,3 (b) | 41,6 | 41,2 | 41,7 | 43,4 | 43,7 | 46,2 | 47,3 | 45,7 | 45,9 | 45,7 |
| Frantzia | 27,4 | 29,5 | 31,5 | 34,7 (p) | 35,6 (p) | 37,7 | 39,7 | 41,4 | 41,2 | 43,2 | 43,5 |
| Grezia | 25,4 | 24,9 | 23,4 | 22,8 | 24,9 | 25,3 | 26,7 | 26,2 | 25,6 | 26,5 | 28,4 |
| Hungaria | 14,8 | 14,8 | 14,4 | 16,3 (b) | 18,5 | 17,9 | 19,0 | 20,1 | 22,4 | 23,9 | 25,7 |
| Irlanda | 27,5 | 30,6 | 32,0 | 35,1 | 38,6 | 39,2 | 41,3 | 43,3 | 46,1 | 49,0 | 49,9 |
| Italia | 11,6 (b) | 12,2 | 13,1 | 13,9 | 15,6 | 17,0 | 17,7 | 18,6 | 19,2 | 19,0 | 19,8 |
| Letonia | 18,6 | 16,8 (i) | 17,3 (b) | 18,3 | 18,5 | 18,5 | 19,2 | 25,6 | 27,0 | 30,1 | 32,3 |
| Lituania | 42,6 (i) | 21,2 | 23,4 (b) | 25,2 | 31,1 | 37,9 | 39,4 | 38,0 | 39,9 | 40,6 | 43,8 |
| Luxenburgo | 21,2 | 23,9 | 23,6 | 17,3 (b) | 31,4 | 37,6 | 35,5 | 35,3 | 39,8 | 46,6 (p) | 46,1 (p) |
| Malta | 7,4 (u) | 12,9 (u) | 9,3 (u) | 13,7 (b) | 17,6 | 18,4 | 21,6 | 21,5 | 20,9 (p) | 21,0 (p) | 18,6 (p) |
| Herbehereak | 26,5 | 27,2 | 28,6 | 31,7 | 33,6 | 34,9 | 35,8 | 36,4 | 40,2 | 40,5 | 41,4 (b) |
| Polonia | 12,5 (b) | 13,2 | 14,4 | 17,2 | 20,4 | 22,7 | 24,7 | 27,0 | 29,7 | 32,8 | 35,3 |
| Portugal | 11,3 | 11,7 | 13,0 | 14,9 | 16,5 | 17,7 | 18,4 | 19,8 | 21,6 | 21,1 | 23,5 |
| Erresuma Batua | 29,0 | 29,9 | 31,5 | 31,5 | 33,6 | 34,6 | 36,5 | 38,5 | 39,7 | 41,5 | 43,0 |
| Txekiar Errepublika | 13,7 | 13,3 | 12,6 | 12,6 | 12,7 | 13,0 | 13,1 | 13,3 | 15,4 | 17,5 | 20,4 |
| Errumania | 8,9 | 8,8 | 9,1 | 8,9 | 10,3 | 11,4 | 12,4 | 13,9 | 16,0 | 16,8 | 18,1 |
| Suedia | 31,8 | 26,6 (b) | 28,3 | 31,0 | 33,9 | 37,6 | 39,5 | 41,0 | 42,0 | 43,9 | 45,8 |

(:) Ez dago eskuragarri. (b) Seriearen haustura. (i) Ikus oharrak: http://epp.eurostat.ec.europa.eu/cache/ITY_SDDS/en/edat_esms.htm#comment. (p) (p) Behin behineko datua. (u) Fidagarritasun edo segurtasun urriko datua.
* Euskadiren kasuan INE datuak.

Iturria: EUROSTAT, Labour Force Survey (Biztanleria Langileari buruzko Europar Inkesta). Urteko batez bestekoak.

## Rs11.4 grafikoa:

**Goi mailako hezkuntzako titulua (unibertsitatekoa, CINE 5A eta 6; unibertsitatez kanpokoa, CINE 5B) duen 30-34 urte bitarteko biztanleriaren ehunekoaren bilakaera Europar Batasuneko herrialdeetan. 2005. eta 2010. urteak.**




Handienetik txikienera “2010. urtea” irizpidearen arabera ordenatua. Euskadirako INEren datuak.

Iturria: EUROSTAT, Labour Force Survey (Biztanleria Langileari buruzko Europar Inkesta). Urteko batez bestekoak.

## Rs11.5 taula:

**Goi mailako hezkuntzako titulua (unibertsitatekoa, CINE 5A eta 6; unibertsitatez kanpokoa, CINE 5B) duen 30-34 urte bitarteko biztanleriaren ehunekoaren bilakaera Europar Batasuneko herrialdeetan. Orokorra eta sexuaren arabera. 2010. urtea.**

| | Orokorra | Emakumezkoak | Gizonezkoak | Aldea[1] |
|---|---|---|---|---|
| **EB (27 herrialde)** | **33,6** | **37,2** | **30** | **7,2** |
| Alemania | 29,8 (i) | 29,7 (i) | 29,9 (i) | -0,2 |
| Austria | 23,5 | 24,5 | 22,5 | 2,0 |
| Belgika | 44,4 | 50,0 | 39,0 | 11,0 |
| Bulgaria | 27,7 | 35,5 | 20,7 | 14,8 |
| Zipre | 45,1 | 48,9 | 41,3 | 7,6 |
| Danimarka | 47,0 | 52,1 | 42,2 | 9,9 |
| Eslovakia | 22,1 | 26,2 | 18,2 | 8,0 |
| Eslovenia | 34,8 | 44,0 | 26,4 | 17,6 |
| **Espainia** | **40,6** | **45,9** | **35,7** | **10,2** |
| Estonia | 40,0 | 47,7 | 32,2 | 15,5 |
| **Euskadi*** | **59,9** | **64,1** | **55,9** | **8,2** |
| Finlandia | 45,7 | 54,0 | 37,7 | 16,3 |
| Frantzia | 43,5 | 47,7 | 39,3 | 8,4 |
| Grezia | 28,4 | 31,4 | 25,7 | 5,7 |
| Herbehereak | 41,4 (b) | 44,4 (b) | 38,4 (b) | 6,0 |
| Hungaria | 25,7 | 30,7 | 21,0 | 9,7 |
| Irlanda | 49,9 | 55,3 | 44,4 | 10,9 |
| Italia | 19,8 | 24,2 | 15,5 | 8,7 |
| Letonia | 32,3 | 41,4 | 23,4 | 18,0 |
| Lituania | 43,8 | 51,2 | 36,3 | 14,9 |
| Luxenburgo | 46,1 (p) | 47,4 (p) | 44,8 (p) | 2,6 |
| Malta | 18,6 (p) | 22,7 (p) | 14,6 (u) | 8,1 |
| Polonia | 35,3 | 40,8 | 29,8 | 11,0 |
| Portugal | 23,5 | 29,4 | 17,7 | 11,7 |
| Erresuma Batua | 43,0 | 45,1 | 40,9 | 4,2 |
| Txekiar Errepublika | 20,4 | 22,3 | 18,6 | 3,7 |
| Errumania | 18,1 | 19,6 | 16,7 | 2,9 |
| Suedia | 45,8 | 52,1 | 39,8 | 12,3 |

(b) Segidaren haustura. (i) Ikus oharrak: http://epp.eurostat.ec.europa.eu/cache/ITY_SDDS/en/edat_esms.htm#comment. (p) Behin behineko datua. (u) Fidagarritasun edo segurtasun urriko datua

*Euskadirako INEren datuak.

[1]Balio positiboek goi mailako hezkuntzako tituludunen artean emakumezkoen kopurua gizonezkoena baino handiagoa dela adierazten dute. Kasu batzuetan aldea ez dator bat kendurarekin, batez besteko puntuazioak biribiltzeko hamarrenak doitzearen ondorioz.

Iturria: INE, Encuesta de Población Activa (EPA-2005). Urteko batez bestekoak.

## Rs11.5 grafikoa:

**Goi mailako hezkuntzako titulua (unibertsitatekoa, CINE 5A eta 6; unibertsitatez kanpokoa, CINE 5B) duen 30-34 urte bitarteko biztanleriaren ehunekoaren bilakaera Europar Batasuneko herrialdeetan. Orokorra eta sexuaren arabera. 2010. urtea.**




Handienetik txikienera “Sexu biak” irizpidearen arabera ordenatua.

Iturria: EUROSTAT, Labour Force Survey (Biztanleria Langileari buruzko Europar Inkesta). Urteko batez bestekoak.